



**Hiztegitxo**

**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



<b>adaxka</b> adartxoa, arramatxoa	Printze txikiak gertutik zaindu zuen besteen antzik ez zuen <b>adaxka</b> hura.	30
<b>adeitasunez</b> errespetuz, gizabidez	...erantzun zuen, <b>adeitasunez</b> , printze txikiak, baina atzeraka jiratu zen arren, ez zuen ezertxo ere ikusi.	66
<b>ahaletan</b> ahaleginetan	...txirrikaren kantuan, ene besoen zazpi <b>ahaletan</b> .	81
<b>ahaltsu</b> boteretsua	— Ez zara oso <b>ahaltsua</b> ...	60
<b>ahantzi</b> ahaztu, atzendu	Ene adiskidea <b>ahantzi</b> nahi ez dudalako ari naiz hura deskribatu nahian. Tristeia da adiskide bat ahanzteia.	20
<b>ahari</b> zikiroa, ardien arra, marroa	— Begira... hori ez da arkume bat, <b>aharia</b> bat baizik.	14
<b>aharrausi</b> aho zabalka	— Protokoloak debekatu egiten du errege baten aurrean aharrausi egitea.	37
<b>aharrausika</b> ahozabalka	Urte asko dira ez dudala inor aharrausika ikusi.	37
<b>aienatu</b> desagertu, uxatu, aldendu	Gau hartan ez nuen abiatzen ikusi. Isilpean <b>aienatu</b> zen.	88
<b>aldarte</b> umorea, jarrera	...eta gizontxoari esan nion —apur bat <b>aldarte</b> txarrez— ez nekiela marrazten.	12
<b>aldiro</b> noizean behin, tarteka	...baina zuk, bizirik iraun dezan, <b>aldiro</b> indultatu egingo duzu.	41
<b>alferrikako</b> baliogabea, hutsala	Garia <b>alferrikakoa</b> da niretzat. Gari soroek ez didate ezertxo ere oroitarazten eta hori tristeia da, gero! Baina zure ileak urre kolorekoak dira.	64
<b>amildegi</b> barga, troka, baxa	Ene besoetan haur txiki baten antzera estutu nuen, eta, hala ere, bazirudien handik amildegi batera irristatzen zitzaidala, eta nik ez niola eutsi...	86
<b>amorrargarri</b> sumintzekoa	<b>Amorrargarria</b> da!	67
<b>amorraturik</b> suminduta, errabiaturik	Ni torlojuarekin <b>amorraturik</b> nengoen, eta burura etorri zitzaidan lehenengo gauza erantzun nion.	28
<b>apal</b> xumea, mantsoa	Ongi uler dezakezue zer-nolako ustekabea hartu nuen, egunsentian, mintzo <b>apal</b> bezain bitxi batek esnatu ninduenen.	11
<b>argibide</b> informazioa, azalpena	...eta haurrontzat nekagarria da betiere <b>argibideak</b> ematen ibili beharra.	10
<b>argizaturik</b> piztuta, isiotuta	...izarrak ez ote dauden <b>argizaturik</b> egunen batean nork berea topa dezan. begiraiozu ene planetari. gure gain-gaiean dago..., baina zien urrun!	60
<b>arinkeria</b> gaintetik, muinari begiratu gabe	Izan ere, nik ez dut nahi ene liburua <b>arinkeriaz</b> irakurria izan dadin. Hain atsekabeturik sentitzen naiz oroitzapen hauek kontatzen.	20
<b>arkume</b> bildotsa, artxoa, axuria	Esan zidan: — Arren, egidazu <b>arkume</b> baten marrazkia!	11
<b>arranpalo</b> txorimalo	Begi <b>arranpaloekin</b> ikusi nuen, beraz, agerpen harrigarri hura.	12
<b>arrazoibide</b> argudioa, arazoiketa	...baina begira geratu zitzaidan eta ene <b>arrazoibideari</b> erantzun zion.	76
<b>asaldatu</b> kezkatu, arduratu	Lauretarako <b>asaldatu</b> eta urduritu egingo naiz:	69
<b>aza</b> ortuaria, landare jangarria	— Zure baobab-ek badute <b>aza</b> itxura apur bat	81
<b>azpiratu</b> menperatu	...elefanteek ezin izango luketela hura <b>azpiratu</b> .	22



<b>barkatuko ahal</b> (desioa) ojala barkatzea	Baina, <b>barkatuko ahal</b> didazue.	21
<b>barren</b> zehar, gaindi	...baina harea, harkaitz eta elurretan <b>barrena</b> luzaroan ibili ostean, halako batean bide topatu zuen printze txikiak.	64
<b>bat etorri</b> ados egon	Eta oraingoan denak <b>bat etorri</b> ziren berarekin.	19
<b>begirik kendu gabe</b> arreta handiz begiratu	...eta gizontxo guztiz liluragarri bat ikusi nuen, niri <b>begirik kendu gabe</b> zegoena.	12
<b>beldarrak</b> larba, oruga	Izan ere, <b>beldarrak</b> akabatu behar izan bainizkion (tximeleta bihurtu ziren bizpahiru izan ezik).	72
<b>beti bat</b> berdin-berdin	Bost minuturen buruan, printze txikia nekatu egin zen josteta <b>beti bat</b> harekin.	43
<b>biltzar</b> bilera	... <b>biltzar</b> baterako bezala bilduko balira, erraz sartu ahal izago lirateke hogeit mila zabal den plaza publiko batean.	59
<b>bionbo</b> babesteko pantaila	Izan ere, bera gerizatu bainuen <b>bionboarekin</b> .	72
<b>birjina</b> ustiatu gabea, berezkoa	Orduan ez nion hitz egiten ez boa sugeez, ez oihan <b>birjinez</b> ez izarrez.	11
<b>bistaratu</b> deskubritu, ikusi	...astronomo turkiar batek <b>bistaratu</b> zuen, 1909an.	19
<b>buruargi</b> zentzuduna	... <b>buruargi</b> samarra iruditzen zitzaidan norbaitekin elkartuz gero, 1. marrazkiaren proba egiten nion.	11
<b>buruiritzi</b> harroa, hantustea, farfaila (vanid)	Hain lore <b>buruiritzia</b> zen...	36
<b>burutazio</b> okurrentzia, ateraldia	Ene proposamenak harritu antzean harrapatu zuen printze txikia. — Lotu? Bai, <b>burutazio</b> bitxia!	16
<b>damu</b> lastima, pena	...bere lehen <b>damu</b> agerpena izan zen.	56
<b>deus</b> ezer ere	— Inondik ere ez zarete ene arrosaren antzekoak, oraindik ez zarete <b>deus</b> ere.	72
<b>dirdai</b> distira, argi printza	Bere edertasun osoaren <b>dirdaiaz</b> agertu nahi zuen.	31
<b>doi-doi</b> justu-justu, ozta-ozta	...bera baino <b>doi-doi</b> handiagoa zen planeta batean bizi zena eta adiskide baten beharra zuena...	20
<b>edale</b> edarizalea, edatuna, mozkortia	Hurrengo planetan <b>edale</b> bat bizi zen.	44
<b>enbarazu egin</b> traba egin, molestatu	— Badira berrogeita hamalau urte planeta honetan nagoela, eta bitarte honetan hiru bider baino ez didate <b>enbarazu egin</b> .	45
<b>erauzi</b> indarrez atera	Baina landare txar bat baldin bada, ernetzen ikusi bezain laster <b>erauzi</b> behar da.	23
<b>erbinude zuri</b> katazurria, bisoia	Purpuraz eta <b>erbinude</b> zuriaren larruz jantzirik, errege aulki xume eta hala ere, mirengarri batean eserita zegoen.	36
<b>ergelkeria</b> lelokeria, tentelkeria	— Ni berriketa gutxiko gizona nauzu, eta ez naiz <b>ergelkeriatan</b> aritzen.	45
<b>erne</b> landarea sortu	Baina landare txar bat baldin bada, <b>ernetzen</b> ikusi bezain laster...	22
<b>ero</b> zoroa	"Bai, izarrak, beti irria eragiten didate!". Eta <b>erotzat</b> hartuko zaituzte. Horra ene bihurrikeria.	88
<b>errefau</b> lutxarbia, landare jangar (rábano)	<b>Errefau</b> edo arrosoondo kimua izanez gero, bere gisara hazten utz daiteke.	22



<b>errefusatu</b> ukatu, ezeztatu	Baina, aurrekoak bezala, hau ere <b>errefusatu</b> egin zuen.	14
<b>erreuma</b> erreumatismo	Bigarren aldia orain dela hamaika urte izan zen, <b>erreuma</b> krisi baten eraginez	46
<b>erritu</b> zeremonia	<b>Errituak</b> beharrezkoak dira.	70
<b>erro</b> zuzterra, sustraia	Bere <b>erroek</b> dena zulatzen dute.	23
<b>erruki</b> gupida, pena	... <b>erruki</b> zaitut, hain zara ahula granitozko lur honetan. egunen batean, zure planetarekin behar baino gehiago gogoratzen bazara, nik lagun diezakezuet.	62
<b>errukibera</b> errukitsua, barkatzeko prest	Halakozeak dira. Ez dira gorrotatu behar. Haurrek osos errukibera izan beharra daukate pertsona nagusiekin.	20
<b>esanekeo</b> obedientea	Printze txikia begira geratu zitzaion; atsegin zuen aginduarekiko hain <b>esanekeoa</b> zen farolari hura.	52
<b>etxetzat</b> etxe gisa, etxe bezala	— Ongi etorriko zait zuk eman didazun kaxa, gauean <b>etxetzat</b> balioko dio-eta.	16
<b>ezti</b> gozo, gozotasunez	Baina ez zidan erantzun. Buruari eragiten zion, <b>ezti</b> , ene hegazkina aztertu bitartean.	16
<b>funts</b> arima, oinarria, gunea	— Bai —esan nion printze txikiari—, etxea dela, izarrak edo basamortua direla, haien edertasunaren <b>funtsa</b> ikusezina da.	78
<b>gabezi</b> falta, hustasuna	Ez dute errorik, eta <b>gabezia</b> horrek zinez zapuzten ditu.	63
<b>gaineratu</b> gehitu, erantsi	Baina printze txikiak <b>gaineratu</b> zuen	22
<b>gaitz</b> zaila, handia	...bakar-bakarrik saiatu nintzen konponketa <b>gaitz</b> hura egiten.	11
<b>gaitzespen</b> txartzat ematea, arbuioa	<b>Gaitzespen</b> ezak harritu egin zuen printze txikia.	34
<b>garaitsu</b> garai haratn gutxi gorabehera	<b>Garaitsu</b> hartan, astronomoek...	19
<b>gaurkotasun</b> izaera modernoa	...guztietan ederrenak dira. sekula ez dute <b>gaurkotasuna</b> galtzen.	56
<b>gauza politagorik</b> hori bai benetan polita!	— Zergatik ez? Gauza politagorik!	
<b>gerizatu</b> babestu, estali	Izan ere, bera <b>gerizatu</b> bainuen bionboarekin.	72
<b>gero</b> (enfasia emateko hitza)	Garia alferrikakoa da niretzat. Gari soroek ez didate ezertxo ere oroitarazten eta hori tristeza da, <b>gero!</b> Baina zure ileak urre kolorekoak dira.	64
<b>gertu-gertutik</b> hur-hurretik, hurbiletik	Luzaroan bizi izan naiz pertsona nagusien artean. <b>Gertu-gertutik</b> ezagutu ditut.	10
<b>gisa</b> modu, era	<b>Gisa</b> horretan, apurka-apurka, zure bizitza xume eta malenkoniatsua ulertu ahal izan nuen.	26
<b>gizateria</b> pertsonak multzoa)	<b>Gizateria</b> Ozeano Bareko uharterik txikienaren gainean bildu ahal izango litzateke.	59
<b>gogogabeturik</b> gogo faltarekin	...marrazkiekin izandako porrotak <b>gogogabeturik</b> utzi ninduen.	10
<b>goibeldu</b> tristetu	Zergatik, ordea, egon behar nuen <b>goibeldurik?</b>	81
<b>goraki</b> ozen, boz goran	— Ene! Ene! Miresle bat ni ikustera etorria! —esan zuen <b>goraki</b> printze txikia urrunetik ikusi bezain laster.	42



<b>graskada</b> haginkada, ahokada	...eta goiz batez, besterik gabe, arkume batek <b>graskada</b> bakar batez desagerrarazi egin dezake.	29
<b>handikiro</b> harro	Erantzun zion erregeak, bere erbinude larruzko kapako hegal bat <b>handikiro</b> jaso bitartean.	37
<b>harrabots</b> zalaparta, astrapala	Eta tren espres argiztatu batek, trumoiaren <b>harrabotsarekin</b> , orratz-zainaren kabina dardarazi zuen.	74
<b>harropuztu</b> harrotu, gangar jarri	...izan ere, kexatzen, <b>harropuzten</b> edota, batzuetan, isiltzen ere entzun bainuen.	72
<b>harroxko</b> burgoia, harroputza	Bigarren planetan <b>harroxko</b> bat bizi zen.	42
<b>hasperen</b> zinkurina, intziria, suspiroa	...tristeziatz <b>hasperen</b> egin zuen, eta honela jarraitu zuen...	52
<b>hegaldatu</b> hegan egin	Gutxi-asko, mundu osoan zehar <b>hegaldatu</b> naiz. Eta, jakina, geografik asko landu ditu.	10
<b>herdoildu</b> ugertu, oxidatu	...izar guztiak txirrika <b>herdoildua</b> duten ur-putzuak izango dira.	90
<b>hesola</b> taketa	—Bistan da. Eta zintzoa bazara, soka bat ere emango dizut, egunez lotu dezazun. Eta <b>hesola</b> bat.	16
<b>hezi</b> trebatu, irakatsi	<b>Hezi</b> duzunaren arduraduna bilakatu zara betiko.	74
<b>hipaka</b> negar-zotinka, intzirika	Istantean negarrez <b>hipaka</b> hasi zen.	30
<b>hipaka</b> zotinka	...istantean negarrez <b>hipaka</b> hasi zen.	30
<b>hitzordu</b> zita	—Ene gizontxo, amesgaizto bat al da sugearen eta <b>hitzorduaren</b> eta izarraren kontu hori guztia?	86
<b>hornidura</b> bizirauteko gaiak	...saltzailearen istorioa entzuten ari nintzen bitartean, neure ur <b>horniduraren</b> azken tanta edan nuen.	76
<b>hornitua</b> adornatua	Printze txikiaren planetan beti egon ziren lore xumeak, petalo lerro bakar batez <b>hornituak</b> ...	30
<b>horratx</b> horra hor, begira hor	<b>Horratx</b> nik nahi nuen arkumea!	14
<b>hotzeri</b> gaixotasuna, gripea	Loreak eztul egin zuen. Baina ez zen <b>hotzeriaren</b> eraginez.	34
<b>hunkigarri</b> bihotz-erdiragarria, sentitua	Misterioa zinez <b>hunkigarria</b> denean, ez dugu obeditu beste aukerarik.	12
<b>hutsal</b> baliogabea	Hiru petaloko lore bat, lore <b>hutsal</b> bat...	62
<b>hutsaren hurrengo</b> ezgauza, ezerezaren parekoa	"Hau ikusiz gero...", esan zion bere buruari, " <b>hutsaren hurrengo</b> sentituko zen. Eztul batean hasiko zen..."	64
<b>igarri</b> sumatu, nabaritu	Orduan haur bat inguratzen baldin bazaizue, irri egiten badu, ile urre kolorea badu, galdeginez gero erantzuten ez badu, berehala <b>igarriko</b> diozue nor den.	95
<b>ikusmiratu</b> begiratu, aztertu	Erantzun zion erregeak, egutegikote bat <b>ikusmiratu</b> bitartean.	40
<b>ile-xerlo</b> ile-sorta	...haizean dardarka zebilzkion <b>ile-xerloei</b> , eta neure buruari esaten nion...	78
<b>imintzio</b> keinua, aierua	Nekadura <b>imintzio</b> bat egin nuen: alferrikakoa da, basamortuaren handian, putzu bat nolana bilatzen hastea.	77
<b>ingurumari</b> aldamenean, ondoan	...eta, bere <b>ingurumarian</b> , begiratu bat luzatu zion geografoaren planetari.	53



<b>iragankor</b> pasakorra	—Zer esan nahi du « <b>iragankor</b> » horrek?	56
<b>irmo</b> azkar, tinko	Bera harrapatzea lortu nuenerako, <b>irmo</b> zihoan, urrats azkarretan.	88
<b>irri</b> irribarretxo	...baina ezintasunez egin zuen <b>irri</b> .	86
<b>irria eragin</b> barregura eman	"Bai, izarrak, beti <b>irria eragiten</b> didate!". Eta erotzat hartuko zaituzte. Horra ene bihurrikeria.	88
<b>itsuskeria</b> dorpezia, fintasun falta	...haren <b>itsuskerien</b> atzean zegoen terneziari antzeman behar nion.	33
<b>itxurak egin</b> plantak egin, disimulatu	Eztul batean hasiko zen eta, lotsagarri ez geratzearren, itxurak egingo zituen hiltzen ari zela erakusteko.	64
<b>itzuli-mintzuli</b> itzulika, bueltaka, hara-honaka	Orduan asaldatu egiten dira, eta <b>itzuli-mintzulika</b> hasi...	80
<b>itzulinguru</b> denbora galtzea, bueltak ematea	Luzaroan isilean hausnartu izan den kontu baten eraginez bezala, zakar eta <b>itzulingururik</b> gabe, galdegin zidan.	27
<b>jakitun</b> aditua, espertoa	Zeure burua epaitzea lortzen baldin baduzu, argi geratuko da egiazko <b>jakituna</b> zarela.	41
<b>jaulki</b> bota, oguzi, harriduraz esan	—Hara! Esploratzaile bat! — <b>jaulki</b> zuen printze txikia ikustearekin batera.	53
<b>josteta</b> jolasa, txantxa	Bost minuturen buruan, printze txikia nekatu egin zen <b>josteta</b> beti bat harekin.	43
<b>kapalu</b> sonbreirua	Ene marrazkiak ez zuen <b>kapelu</b> bat erakusten. Elefante iresten ari zen boa suge bat baizik.	10
<b>karel</b> itsasontzien goiko ertza	Ontzia astiro jaso nuen putzuaren <b>kareleraino</b> .	80
<b>karkaila</b> barre algarra	Eta printze txikiari atera zitzaion irri <b>karkaila</b> ozenak benetan sumindu ninduen.	16
<b>kasik</b> ia	Apurka-apurka, <b>kasik</b> konturatu gabe esandako hitz batzuek argitu zidaten dena.	15
<b>kaxkar</b> eskasa, txepela	—Nik ezagutzen dut —esan zuen printze txikiak— esportatzaile <b>kaxkarra</b> izango litzatekeen bakarren bat.	55
<b>kedar</b> ke beltzaren arrastoa, geruza	Bizirik zeuden sumendiei kontu handiz kendu zien <b>kedarra</b> .	34
<b>kikildu</b> koldartu, beldurtu	Horrek <b>kikildu</b> egiten nau...	37
<b>kimu</b> ernamuina, adaxka sortu berria	...lotsaturik bezala, eguzkirantz luzatzen du bere <b>kimu</b> ahula.	22
<b>kolera</b> haserre, sumindura	<b>Kolera</b> bizian zegoen.	28
<b>kopeta</b> bekokia	Horren ostean, koadro gorriekiko musuzapi batekin xukatu zuen <b>kopeta</b> .	50
<b>kriseilu</b> lanparatxoa (oliozkoa)	Horren ostean, beren <b>kriseiluak</b> pizten zituztelarik, lotara erretiratzen ziren.	58
<b>kriskitin</b> kaskabela, eskuko musika tresna	—Izarren ordeztu, irri egiten dakiten <b>kriskitin</b> ñimiño pila eman banizu bezalaxe izango da...	88
<b>kudeatu</b> administratu, gestionatu	— <b>Kudeatu</b> egiten ditut. Zenbatu eta zenbatu, behin eta berriz.	48
<b>laudorio</b> gorespina, alabantza	Harroek <b>laudorioak</b> besterik ez dute ulertzen.	43



<b>lerratu</b> irristatu, labaindu	Baina ene zaratarekin sugea leun <b>lerratu</b> zen harean, amaitzen ari den ur turrusta baten gisa.	84
<b>lezio</b> ikasbidea	Eman nien <b>lezioa</b> kontuan hartzekoa zen.	24
<b>libertigarri</b> dibertigarria, ondo pasatzekoa	“ <b>Libertigarria</b> da”, pentsatu zuen printze txikiak.	48
<b>liztor</b> intsekto eztenduna, urebioa	—Lehenengo aldia orain dela hogeita bi urte izan zen, <b>liztor</b> bat batek daki nondik heldu zenean.	46
<b>loki</b> buruko partea, belarri aurrean	<b>Lokiak</b> busti, eta edaten eman nion.	84
<b>lotsagorritu</b> lotsatu, ahalketu	Eta <b>lotsagorritu</b> egin zen.	82
<b>makur</b> zitara, doilorra	Sugeak <b>makurrak</b> dira. Atsegin hutsagatik ziztatzten dute.	88
<b>malenkonía</b> goibeltasuna, tristura	Eta <b>malenkonía</b> apur batekin, beharbada gaineratu zuen...	18
<b>manufaktura</b> eskuz egina	Gauza <b>manufakturatuak</b> erosten dizkiete merkatariei.	69
<b>masailgorri</b> musugorria, umetxoa	—Nik ezagutzen dudana planeta batean gizon <b>masailgorri</b> bat bizi da. Sekula ez du lore bat usaindu.	29
<b>matxura</b> aberia	Hala bada, bakar-bakarrik bizi izan naiz, inorekin zinez mintzatu gabe, harik eta, orain dela sei urte, Saharako basamortuan <b>matxura</b> bat izan nuen arte.	11
<b>mehatxatu</b> zemaitu, zigortzeko keinua	...diktadore turkiar batek heriotza zigorrarekin <b>mehatxatu</b> zituen..	19
<b>mintzo izan</b> hitz egin, solastu, berba egin	...baina zergatik <b>mintzo zara</b> etengabe igarkizuna? Den-denak asmatzen ditut —esan zuek sugeak.	62
<b>mitxoleta</b> belar mota, amapola	Ez zuen, <b>mitxoleten</b> antzera, zimurrez beterik agertu nahi.	31
<b>mutur</b> burua, punta, erpina	Printze txikiarentzat marraztu nuen <b>muturrekoari</b> larruzko uhala eranstea ahantzi zitzaidan.	91
<b>nagi</b> alferra, alprojatxoa	Izan ere, litekeena baita aldi berean esanekoa eta <b>nagia</b> izatea.	52
<b>nagiak atera</b> logura kentzeko besoak mugitu	Orduan, haziak <b>nagiak atera</b> eta, aurrena, lotsaturik bezala, eguzkirantz luzatzen du bere kimu ahula.	22
<b>nahigabeturik</b> penaturik, triste	—Oi! —printze txikia <b>nahigabeturik</b> zegoen—.	53
<b>nekeza</b> zaila, gaitza	...boa irekia beste sailakerarik egin ez nuenez, zinez <b>nekeza</b> da nire adinean berriz ere marrazten hastea!	21
<b>ñimiño</b> txikitxoa	...izarren ordeztu, irri egiten dakiten kriskitin <b>ñimiño</b> pila eman banizu bezalaxe izango da.	88
<b>oihartzun</b> durundia, soinu errepikatua	—Egun on... Egun on... Egun on... —erantzun, <b>oihartzunak</b> .	63
<b>oroitu</b> gogoratu, akorduan izan	—Funtsezkoa ikusezina da begientzat —errepikatu zuen printze txikiak, gero <b>oroitu</b> ahal izateko.	72
<b>orraz-zain</b> trenbideko errailen kontroladore	—Egun on —esan zuen <b>orraz-zainak</b> .	74
<b>ostera</b> berriz	Boa oso arriskutsua da eta, elefantea, <b>ostera</b> , traba bat besterik ez.	14
<b>pasiera</b> apapa, ibilaldia, paseoa	Mahastiraino joaten naiz <b>pasieran</b> .	70



<b>pasieran</b> ibiladitxoa eginez	Beraz, osteguna egun zoragarria da! Mahastiraino joaten naiz <b>pasieran</b> .	70
<b>patentatu</b> erregistratu	Idea bat izaten lehena zarenean, <b>patentatu</b> egiten duzu.	48
<b>piko</b> aldapa handikoa	Baina harkaitz orratz ezin <b>pikoagoak</b> baino ez zituen ikusi.	63
<b>pilpira</b> taupada, pultsazioa	...eskoPETAZ tiro egin, eta hiltzeAR dagoen txoriAREN biHOTZA nola, halATSU sumATZEN nituen printze txikiAREN <b>pilpirak</b> .	84
<b>pinpirina</b> apaina, panpoxa (neska)	Oso <b>pinpirina</b> zen, bai horixe!	31
<b>pipil</b> kapulua, irekitzeko dagoena	Printze txikia lore <b>pipil</b> handi baten agerpenAREN lekuko izan zen.	30
<b>solasean</b> hizketan, berbaz, elekan	Eta <b>solasean</b> sumatu nuen...	83
<b>sorburua</b> iturburua, jatorria	Gaizki ulertuen <b>sorburua</b> da hizkuntza.	69
<b>su-lama</b> sugarra	...lore batekiko duen fideltasunak liluratzen nau, edota argiontzi baten <b>su-lamak</b> bezala...	78
<b>suertatu</b> gertatu	Eta, noizbait hortik igarotzea <b>suertatzen</b> baldin bazaizue, arrenka eskatzen dizuet, ez izan presarik, itxaron ezazue apur batean izarraren azpi-azpian!	95
<b>sukar</b> kalentura, gaixotasunak eragina	...eta ametsetan bezala ikusten nituen, egarriak eragindako <b>sukar</b> apur batekin.	77
<b>sumindu</b> berotu, haserre bezala jarri	...atera zitzaion irri karkaila ozenak benetan <b>sumindu</b> ninduen.	16
<b>tamala da</b> pena da	— Bizitza honetan batik bat lo egitea atsegin dut. — <b>Tamala</b> da, ba —esan zuen printze txikiak.	52
<b>tantai</b> handia, garaia	Printze txikiari argitu nahi izan nion baobab-ak ez zirela zuhaixkak, elizak bezalako zuhaitz <b>tantaiak</b> baizik...	22
<b>tenore</b> ordua, unea	Eta abiatzeko <b>tenorea</b> hurbildu zelarik...	70
<b>terneziari</b> samurtasuna, bihozbera izatea	...haren itsuskerien atzean zegoen <b>terneziari</b> antzeman behar nion.	33
<b>tinko</b> irmo	... <b>tinko</b> begiratu zidan, besoekin lepoa inguratzen zidala.	84
<b>trufa</b> iseka, burla, txantxa	Baina, bistan da, bizitza zer den dakigunok, zenbakien irri eta <b>trufa</b> egiten dugu!	20
<b>turrusta</b> txorrotada	Baina ene zaratarekin sugea leun lerratu zen harean, amaitzen ari den ur <b>turrusta</b> baten gisa.	84
<b>txepel</b> inozoa, eskasa	Hain gezur <b>txepela</b> prestatzen harrapatua izan zelarik, bizpahiru bider egin zuen ez tul printze txikia nabarmen uzteko...	33
<b>txintik ez</b> tutik ere ez	Printze txikiak ez zuen txintik ere erantzun.	60
<b>txirrika</b> polea	Dena prest dago: <b>txirrika</b> , ontzia eta soka...	80
<b>urrats</b> pausoa	<b>Urrats</b> bat aurrera.	91
<b>urrindatu</b> lurrindu, perfumatu	Nireak planeta <b>urrindatzen</b> zuen, baina ez nintzen horregatik pozteko gai.	33
<b>xahutu</b> gastatu, eralgi	Baina ez ezazue zuen denbora zeregin horretan <b>xahutu</b> .	59





<b>xalo</b> apala, xumea	Eta hain <b>xaloo</b> ...!	91
<b>xaloki</b> apalki, atseginez	Eta bere lau arantzak erakutsi zituen <b>xaloki</b> .	36
<b>xarma</b> enkantua	...baina etxe guztia <b>xarmaz</b> betetzen zuen. Ene etxeak sekretu bat gordetzen zuen bere bihotzaren barnean...	78
<b>xarmagarri</b> zoragarria	...baina, bistan denez, ene marrazkia ez da inondik ere modelo bezain <b>xarmagarria</b> .	12
<b>xehetasun</b> zehaztasuna, ñabardura	...asteroideari buruzko <b>xehetasunak</b> eta zenbakia.	19
<b>xukatu</b> lehortu	Horren ostean, koadro gorriekiko musuzapi batekin <b>xukatu</b> zuen kopeta.	50
<b>xume</b> apala, sinplea	Purpuraz eta erbinude zuriaren larruz jaintzirik, errege aulki <b>xume</b> eta, hala ere, miresgarri batean eserita zegoen.	36
<b>xuxurla</b> zurrumurrua	Eta nik atsegin izango dut haizeak garitzan barrena sortzen duen <b>xuxurla</b> ...	69
<b>zabarkeria</b> baldarkeria, axolagabekeria	Hegoburuko farol bakarraren haren lankidea bizi ziren nagusitasunak eta <b>zabarkeriak</b> jota.	58
<b>zapuztu</b> gogogabetu, mukertu	...ez dute errorik, eta gabezia horrek zinez <b>zapuzten</b> ditu.	63
<b>zimur</b> izurra, tolesa	...jakina-erantzun nion, eta hareak ilargipean erakusten zituen <b>zimurrei</b> begiratu nien.	77
<b>zinezko</b> benetakoa, egiazkoa	Aire korronteek izutu..., landare batentzat <b>zinezko</b> zorigaitza...	32
<b>zurbil</b> margula, kolore gabea	eta begiratu egiten nien, ilargiaren argitan, haren kopeta <b>zurbilari</b> .	78
<b>zurbildurik</b> zuri, kolorgeturik	Une hartan printze txikia amorraren amorrus <b>zurbildurik</b> zegoen.	29